

1.ESTALDURAK

Kontratu honen bidez, Agiri Teknikoen XI. klausulan aurreikusitako kalte-ordainak ordainduko direla bermatzen da, aseguratutako pertsonak izandako istripuen ondorioz honako egoera hauetan gertatzen badira:

a) Asegurupekoaren **HERIOTZA**, 14 urtez gorakoak, baldin eta berau istripuak eragin eta berehala gertatzen bada edo istripua gertatu den egunetik hasita bost urteko epean.

b) **ERABATEKO EZINTASUN IRAUNKORRA** eta **EZINTASUN IRAUNKOR OSOA**, polizak estaltzen duen istripu batek eraginda. Asegurupekoa egoera horietaz jota geratzen bada bai istripuaren eraginez zuzenean, bai istripua gertatu den egunetik hasita bi urte eta erdiko epean.

c) **EZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA** istripu baten ondorioz, graduaren arabera. Gorputz atal galera guztiak hartzen dira, anatomikoak nahiz funtzionalak.

Aseguru mota honen berezko kasu nagusiez gain, honako hauek ere hartuko dira istripuztat:

- a) Gasak nahi gabe arnastearen ondoriozko pozoitzea, asfixia edo erretzea, murgilduraz, material likido edo solidoen ingestioz, elikagaiak izan edo ez, baldin eta beste baten akats edo ekimen kriminalaren ondorioz badira.
- b) Polizak estaltzen duen istripu baten ondoriozko infekzioak.
- c) Polizak estaltzen duen istripu bat gertatuta, interbentzio kirurgikoaren edo mediku tratamenduaren ondorioak eta infekzioak, baita egiten edo agintzen dituen dituen medikuaren erru, zabarkeria edo doluaren ondorioz gertatzen badira ere.
- d) Intsolazioak, kongestioak, izozketak edo tenperaturaren edo atmosferaren presioaren eraginak, baldin eta asegurupekoak istripuaren ondorioz izan bada haien eraginaren pean.
- e) Animalien hozkadek eta intsektuen ziztadek-eta eragindako ondorio guztiak.
- f) Bere buruaren defentsan eta giza elkartasunaren betebeharrarekin zerikusia dutenetan gertatutakoak.
- g) Apoplexia, zorabio, konorte galtze, sinkope, epilepsia krisi, erotasun edo sonanbulismo egoeretan gertatutakoak.
- h) Lurreko, uretako edo aireko lokomozio baliabideen erabilera arruntean gertatutakoak. Motorra, automobila, turismo partikularra, furgoneta eta kamioia gidatzean gertatutakoak, betiere asegurupekoak gida baimena egokia badauka.
- i) Edozein motako kirola egitean gertatutakoak. Barne dira, automobilen erabilera (karts), itsas zabalean arraun-ontzietan, belaontzietan, surf, piraguismoa eta beste itsas jarduerak, edo motorrezko ontzietan gertatutakoak; mendiak igotzen, eskiatzen eta urpeko arrantza egiten (eskafandra autonomoarekin edo gabe) gertatutakoak.
- j) Goi tentsioko korranteetan esku-hartzearen ondorioz gertatutakoak.
- k) Zaintiratzeak eta bihurritzeak. Barne dira ere betaurrekoen haustura eta protesiak (hortz protesiak ere, mugiezinak izan ala ez).
- l) Istripu dira lesioak edo heriotza eta ondorioak, baldin eta jatorria hauetako bat bada: bihotzekoa, enbolia, buruko isuria eta antzekoak, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu edo babestutako kirol eta kultur jardueretan gertatutakoak bada.
- m) Arestian azaldutakoek duten izaera bereko ezbeharrak, baldin eta Estatu lurraldetik kanpo gertatu badira, berariaz daude Konpainia aseguratzaileak babestuak polizaren baldintzei jarraikiz. Beraz, mundu mailako estaldura da.

- n) Polizaren estaldura zabalduko da asegurupekoek Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu edo babestutako kirol eta kultur jardueretan dituzten istripuetara. Estalita geratuko dira, halaber, *'in itinere'* gertatutako istripuetatik.
- o) Kasuan kasuko ebazpen edo epai irmoetan eskumena duten erakunde ofizial edo jurisdikzionalak istripu gisa katalogatutako egitate guztiak. Ondorioz, gertaera bat istripu gisa kalifikatzea, heriotza eta ezintasun iraunkorraren graduazioa. Gizarte Segurantzaren eta/edo dagozkion ebazpen edo epai irmoetan eskumena duten erakunde ofizial edo jurisdikzionalen erregulazioaren arabera izango dira.

KANPOAN GERATZEN DIREN ARRISKUAK

Kontratzen den polizatik kanpo geratuko dira ondorengo istripuak:

- a) Asegurupekoak nahita sortu dituen ezbeharrak.
- b) Aseguratuak aire nabigazioko aparatuak erabiltzearen ondoriozko istripuak, non eta ez diren linea erregularren edo charter hegaldien bidaiari gisa egindako hegaldiak edo adierazitako estaldura esparruan nahitaez egindakoak.
- c) Gerrate zibil eta nazioen artekoetan gertatutakoak.
- d) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagozkion istripuak, bere araudiaren arabera.
- e) Duelu, erronka, apustu edo liskarren ondoriozkoak.
- f) Erradiazioa edo energia nuklearraren ondorioak zuzen edo zeharka gertatutakoak.
- g) Edonolako klase eta izaerako gaixotasunak.

ESTALDURA OSAGARRIAK

a) MEDIKU LAGUNTZA ODONTO-ESTOMATOLOGIKOA. Aseguratuentzat mediku laguntza odonto-estomatologikoa sartuko da, hortzetako protesiak barne.

b) OSASUN LAGUNTZA ETA MEDIKU ETA BOTIKETARAKO LAGUNTZA. Estaldura hau bermatuta dago Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzuak antolatutako udako jardueretan parte hartzen duten pertsona guztientzat; polizan aseguraturako gainerako jardueretan baldintzapean emango da, alegia, parte hartzaileak osasun laguntza ematen dion bestelako aseguru eskubiderik ez duenean.

c) ZAURITUEN SALBAMENDU ETA GARRAIO GASTUAK, polizak estaltzen duen istripu baten ondoriozkoak direnean.

d) ERREHABILITAZIO GASTUAK, aseguratuak berak aukeratutako osasun zentroetan.

e) LEHENENGO PROTESI ORTOPEDIKOA, protesia jartzeko mediku gastuak barne.

f) EHORZKETA GASTUAK. Hamalau urtetik beherako aseguraturantz bakarrik.

g) JOAN-ETORRI eta EGONALDI GASTUAK, lagun batenak, estalitako ezbehar baten ondorioz adin txikikoen hospitalizazioa dela eta.

Estaldura osagarri hauek istripua gertatu den egunetik hasita bi urteko epean izandako gastu eta laguntzetara hedatuko da.

2.ZENTRO MEDIKUEN ZERRENDA

Kontzertatutako zentro bakarra dago:

POLICLÍNICA GIPUZKOA – QUIRON SALUD

Miramón Pasealekua 174 – 20.009 Donostia – San Sebastián

3.ASEGURU-ETXEAREN KONTAKTUA

Surnetik jakinarazi digutenez, ezinezkoa da istripuetarako pertsona espezifiko bat edukitzea. Orain arte bezala postontzia erabili beharko da:

ASESMED

926 406 441 24 ORDUKO ARRETA / 91 737 77 73 BULEGOKO ORDUTEGIA